

Turismo Aktiboko Enpresak Sortu eta Kudeatzeko master unibertsitarioa.

2012/05/18

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak turismo aktiboko industrian etorkizuneko profesionalen formakuntzan aurrera pausu bat eman du. Azken hiru urteetan zehar Surf eta Irristatze kiroletan Marketing eta Management Aditu Ikastaroa eskaini eta garatu ondoren, oraingo honetan Europako Goi Mailako Hezkuntza eremura egokitze bidean dagoen lehen master unibertsitarioa eskaintzen dugu. Bere helburu nagusia turismo aktiboko enpresak sortu eta kudeatzea delarik.

Formazio hau graduatu berri nahiz sektoreko profesionaleri zuzenduta dago.

